


B

BARREN

TOKIKOM



Hogei urteren ondoren, berriro ibaian behera



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14-16 behea
☎ / Faxe: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

García

Aluminioa eta PVCa
P. Muguruza, 30
☎ 943 74 32 38

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabillioia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Leihoak

Sigmako Industrialdea
Xixilion 2-2. pabillioia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxe: 943 74 73 12
www.fjodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • MENDARO
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana Iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxe: 943 53 18 25

Zubizarreta instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Proiektu eta erreformak

Estudios Arrillaga

Errosario, 15 behea (Elgoibar)
☎ 943 744 055/943 744 019
Arragueta, 12 behea (Eibar)
☎ 943 200 698



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
MENDARO
☎ 659 934 964

Urzelai

Santa Ana, 12-14
☎ 943 74 13 76/608 774 032



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04

Lanusta

Etxe barruko erreformak
☎ 636 375 323
www.lanusta.com



Autoentzako tindatutako kristalak

Glas Control S.L.

Olaso 27, 47. pabillioia
☎ 943 74 30 94



Sarrailagintza

Giltzak

Arragueta, 3 (Eibar)
☎ 943 701 391
www.giltzak.com



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upaiz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ipintza

Foruen enparantza, 4
☎ 943 74 04 40
☎ 607 74 04 40

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Lorezaintza

Pagoa loradenda

Nafarroa plaza 1
☎ 943 74 01 89
☎ 688 631 307



MERKATU PLAZA

Uste duzuna baino gehiago!



Arantxa eta Marian
FRUTADENDA



M. Angeles
FRUTADENDA



Zabala
URDAITEGIA eta ARDANDEGIA



Amaia FRUTADENDA



MARI HARATEGIA



TXILARRE BARAZKIAK
Elkagai ekologikoak



ZABALA FRUTADENDA

**OSTEGUNERO
OTARRE BAT
ZOKKETATUKO
DUGU!**

*San Bartolome
jai zoriontsuak!*



Jai zoriontsuak!



**EUZKO
GAZTEDI**

Elgoibarko EGI



Gora San Bartolome!

Urtero bezala, uztaila igarotzen doan heinean sentsazio eta ekintza asko datozkit burura: azken lan egunak, hondartza, eguzkiaren berotasuna gorputz azalean, estropadak, Frantziako Tourra... eta jaiak, herrietako jaiak. Gogoan ditut orain dela urte gutxi egiten nituen birak: Mutrikun madalenak, Plaentxin santiagoak, Mendaron santanak, Azpeitxin saninazioak, sanlorentzoak, Deban sanrokeak, eta nola ez, birari amaiera borobila emateko, Elgoibarren sanbartolomeak. Zenbat oroitzapen gozo datozkidan burura...

Gogoan dut txikia nintzenean kalean sortzen zen giroa. Niretzat orduan nagusiak ziren gizon eta emakume haiek nola ospatzen zituzten jaiak. Garai hartako Errosario kalean jarritako mahaien inguruan sortzen ziren bazkalondoak, plazako tribuna zaharrean eserita ikusten nituen ekintza desberdinak, barraketan egiten nituen jolasaldiak, zezenaren aurrean egiten nituen korrikaldiak...

Urteak aurrera doazen heinean, jaiak modu desberdinean bizi ohi ditugu. Txikitan, barraketako musika eta ibilgailuek sorturiko adrenalina. Gaztetan, lehen parrandak, gauaren iluntasuna gaizkide nuela eta tabernetako jendearen babesean. Orain, berriz, egunak ematen duen argi indarraren babesean eta jaietan dauden ekitaldi ezberdinez gozatzen. Bezperan, lagun arteko elkartzea, txupinazoa, poteoa, bazkaria. San Bartolome Egunean, bandaren kontzertua, esku pilota partida, iluntzean sortzen den giroa. Txiki Egunean, ardo bainuak, jendeak eginiko dorreak, Mauxitxa txarangaren doinu mitikoak. Gazteen Egunean, goiti-beherak, bazkaria, kontzertua. Jubilatuen Egunean, hegaluze parrillada eta, ondoren, egiten dugun bazkaria; eta bukatzeko, Baserritar Eguneko sagardo dastaketaren inguruan sortutako giroa... eta ahaztu ditudan hainbat gauza.

Elgoibarren soberan ezaguna dugu Bartolome santua, baina jende askok ez du jakingo Bartolome santua Jesusen azken afariko hamabi apostolu horietako bat zela. Bera izango ote zen afari hori antolatu zuena? Nork daki. Seguru dakidana da Bartolomek ez zuela izango etorkizunean bere omenez egingo ziren afari eta ospakizunen berri. Egia esanda bost axola zait hori dena, baina gai honen inguruan argi daukadan gauza bakarra hau da: GORA SAN BARTOLOME!!!!

Zigor Cornejo



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitzez gurekin harremanetan:
943 74 41 12 edo barren@elgoibarkoizarra.com

"Jende askok ez du jakingo Bartolome santua Jesusen azken afariko hamabi apostoluetako bat zela"

**IRAILEAN ITZULIKO GARA
SAN BARTOLOME JAIETAKO IRUDIEKIN!
Ondo pasa jaixetan!**



**Egin
klik
eta
ikusiko
duzu**

www.elgoiBARREN.net

**ELGOIBARKO IZARRA
KULTUR ELKARTEA**

IÑIGO ZEARSOLO

KULTURA ZINEGOTZIA

“Gustatuko litzaidake jaietako egitaraua prestatzeko proposamen gehiago jasotzea”

Jose Antonio Osoro bandako zuzendariak botako du txupinazoa aurten, eta une horretatik aurrera, zazpi egun izango dituzte elgoibartarrek parrandarako. Krisiaren eraginez, baina, egitarauan murrizketak egin dituzte aurten. Iñigo Zearsolo Kultura zinegotziak azaldu ditu egitarauan izan diren aldaketak.



Aurtengo jaietako egitarauan ekintza gutxiago daude. Zenbateko aurrekontua izan duzue jaiak antolatzeko? eta zenbatekoa izan da murrizketa?

Aurrekontua asko jaitsi da, eta hori izan da ekintzak murriztearen arrazoi nagusia. 155.000 euroko aurrekontua izan dugu aurten, iazkoa baino %27,26 txikiagoa. Beste herrietan ere, joera antzerakoa izan da. Gure helburua %30eko jaitsieratik ez pasatzea zen, eta hori lotu dugu. Iaz, 214.00 euro inguruko aurrekontua izan genuen.

Su artifizialak falta dira. Suak kentzea ez zen erabaki erraza izango!

Su artifizialak oso garestiak dira, baina, niri pertsonalki, pena handia eman dit egitarautik kendu behar izateak. Orain dela bi urte sua eta musika batzen zituen ekintza berritzaile bat ekarri genuen, eta jendea-

ri izugarri gustatu zitzaion. Iaz errepikatu egin genuen, baina jendeak gehiago espero zuen, eta ez zuen hainbeste arrakasta eduki. 5.800 euro gastatu genituen kontu horretan. Aurten Astondoaren eskaintzako ekintza garestiena ekarri nahi genuen, baina ezin izan dugu. Jendea-ri pena emango diola uste dut, eta igariko du falta, baina aurten ezin izan da.

Zer gehiago kendu duzue?

Ez ditugu ekintza asko kendu; merkeagoak ekarri ditugu. Egitarauaren estruktura, oro har, berdina da. Aurrekontuaren portzentaje handiena musikak hartzen du. Iaz, 66.300 euroko aurrekontua izan genuen musika ekitaldietarako, eta aurten, 38.900 eurokoa; %41,3 txikiagoa izango da, baina lau musika ekintza bakarrik kendu dira. Iaz hamazazpi

 **Burtsa
informatikoa**



GABILONDO
317
api
INMOBILIARIA AGENTZIA
Zuzenbidean lizentziatua

API { Edurne Gabilondo Loyola
Jose M^a Azpeleta Iturricastillo

Jai zoriontsuak denoi

San Frantzisko 51, behea • ELGOIBAR • Tel: 943 744 467

“Pena handia eman dit su artifizialak egitarautik kendu beharra izateak”

izan ziren, eta aurten hamahiru. Arratsaldeetan musika ekitaldiak jartzeko apustua egin genuen iaz, eta aurten eutsi egin diogu horri, baina bi egunetan kale antzerkia izango da. Horrez gain, txapliguetan ere diru asko aurreztu dugu. Iaz, 4.900 euro gastatu genituen, eta aurten, 2.569. Era berean, aurten Udalaren eskenatokia jarriko dugu, eta alokairua ere aurreztuko dugu. Azkenik, txakur eta zaldi erakusketak kendu ditugu, eta horrekin beste 5.000 euro inguru aurreztu dugu.

Zein irizpide erabiltzen duzue ekintzak kentzeko ala mantentzeko?

Irizpide ekonomikoaz gain, ekintzak izan duen ibilbidea eta arrakasta hartzen dira kontuan. Gazteen Egunean, esaterako, goitibeheren jaietsiera ezin da kendu. Ekitaldiek daukaten pisua oso garrantzitsua da.

Herritarrek hartzen dute parte egitaraua prestatzen?

Herritarrengandik proposamen gehiago jasotzea gustatuko litzaidake. Proposamen gehienak musika taldeen ingurukoak izaten dira, baina bestela oso ekintza gutxi proposatzen dituzte. Herritarren laguntzarekin egitaraua aberatsagoa izango litzateke.

Gustura geratu zarete aurtengo egitarauarekin?

Bai. Geneukan aurrekontuarekin egitarau txukuna prestatu dugula usate dut, eta jendearen gustukoa izatea espero dut.

Zein da zuri gehien gustatzen zaizun eguna?

Egun bakoitzak berea du, baina bat aukeratzekotan, San Bartolome egunarekin geratzen naiz. Herritarrek gehien bizi duten eguna dela usate dut, eta jende asko urte osoan egoten da egun horren zain. Beste askok Txiki Eguna dela esango dute, beharbada, baina San Bartolome egunean ekintza asko izaten dira: prozesioa, kalejirak, dantza, pilota partidak arratsaldean... Egun konpletoena da.

Zezenekin zerikusia duten ekitaldiak kentzen ari dira herri askotan. Elgoibarren, baina, sokamuturra mantendu egiten da urtez urte.

Elgoibarko egitarautik ezin da sokamuturra kendu. Hori oso argi daukagu. Aurten, gainera, sorpresa txiki bat egongo da: iaz errekarera erori zen *Gorri* zezenaren omenez abesti bat konposatu du Txomin Mujikak, eta dieran joko dute. Ohitura bilakatzea gustatuko litzaziguke, eta hemendik 50 urtera gogoratzea errekarera jausi zen zezenaren omenez egiten dela. Polita izango litzateke.

Kartel irabazlearen inguruan eztabaida handia sortu da aurten, eta batzuek diote beti berdina irabazten duela Elgoibarren. Zer diozue?

Iñaki Raigoso, Alberto Garcia, Jokin Martinez eta nik osatzen dugu epaimahaia, eta geuk ere sorpresa hartu genuen sobrea ireki eta Esnalen izena ikusi genuenean. Baina horrela izan da! Hor ez dago tranparik. Sobreak itxita egoten dira, eta ez dugu jakiten norenak diren. Gainera, beste sobreak zabaldu ere ez ditugu egiten. Aurten lan gutxiago aurkeztu dituzte, eta maila apalagoa izan da. Aurtengo kartel irabazleak hasieratik eman zigun atentzioa. Udaletxea kartoiez egin du, eta bertatik irtetzen dira jaietako elementu guztiak: txupinazoa, erraldoia, saxofoia, *Gorri* zezena... originala eta desberdina iruditu zaigu. Guk ez daukagu inolako interesik, eta hori argi laga nahi dut.

Zer falta zaie Elgoibarko jaiari?

Ez dakit, baina jendeak askotan esan dit lehen Txiki Egunean mahatsa banatzeko ohitura zegoela. Akaso, denborarekin galdu diren ohiturak berreskuratzea polita izango litzateke, baina bestela jai konpletoak dira. Egun asko dira, eta bakoitzak bere ezaugarriak ditu. Norberak bere gunea aurkitzen badu, ondo pasatuko du.

Ipini nota Elgoibarko jaiari.

Beti dago hobetzeko zeezer, baina oso ongi altua emango nieke.

Ainhoa Andonegi

Zerbitzu iraunkorra: 943 74 13 27



Santa Klara, 16 behea • ELGOIBAR
Tel: 943 741 656 / 943 740 117
Mugikorra: 635 75 62 95
E-posta: tanaetxe@terra.es


EHORZKETA
ETXEBERRIA, S.L.



BEILATOKIA

25 SARIKI
METROLOGIA
Metrologia Arrazoiarekin Aplikatu

Ondo pasa jaiak!



NEURKETA DIMENSIONALENTZAKO EKIPU HORNITZATILEA
KONTSULTORIA, PROIEKTU PERTSONALIZATUAK, FORMAKUNTZA



www.sariki.es www.sarikal.es



KALIBRAZIO LABORATEGIA ETA NEURKETA ZERBITZUAK

LEIGAR ELEKTRAGAILUAK
M A N U L E I Z A B E L O Y O L A



TB · BIDEOA · HI-FI · DVD
Salmenta eta zerbitzu teknikoak
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54

Ondo pasa jaiak!

Luis F. Beristain

Korporazioa
key **FORMA**

banatzaile ofiziala

ETXEKIT

12 urteko bermea

Arrillaga z/g - Elgoibar
Tel. 943 74 43 47

Ondo pasa San Bartolome jaiak!



IMH, Azkue auzoa, 1 – 20870 Elgoibar - tel 943744132 - www.imh.es - imh@imh.es



*75 urte zuen zerbitzura!
75 urte zuei esker*

*San Bartolome
jai goxoak pasa!*



San Bartolome, 34-35 Tel.: 943 740 345

Kantuz sortu naiz eta kantuz nahi bizi

Kanturako zaletasunak batzen ditu, eta hileko azkeneko zapaturu irteten dira kalera, kantura. Aurten, bigarren urtez jarraian, San Bartolome jaietako egitarauan sartu dituzte, eta hilaren 28an, Baserritarren Egunean, kalez kale ibiliko dira, euskal kantuekin jaiak girotzen. Juan Carlos Arrieta Kale Kantariak taldearen bultzatzaile nagusiak parte hartzera deitu ditu herritarrak, eta ahal duten guztiei baserritarrez jantzita irteteko eskatu die. “Ez dadila inor lotsatu, eta datozela gazteak ere kantura, ez dira damutuko eta”.

Aspalditik zuen Juan Carlos Arrietak kanturako taldetxo bat osatzeko gogoa, eta pentsatu eta egin. Entzuna zeukan han eta hemen bazirela kanturako taldeak, bereziki Bizkaia aldean, eta Elgoibarrek ere halako zerbait behar zuela bururatu zitzaion. Eskarmentua bazuen kanturako, Elgoibarrera etorri ohi ziren Benta Zaharreko Mutil Alaiak taldearekin ibilia zelako herrian, eta hamaika saltsatan sartutako gizona izanda, gauzak antolatzeko erraztasuna ere bazuen. Halaxe, Kultura Sailera jo zuen, aholku eske. “Lagunduko zidatela agindu zidaten Kulturakoek, eta han hasi nintzen ni bazterrak nahasten. Batekin eta bestearekin berba eginda, taldea sortzeko konpromisoa hartzen banuen kanturako batuko zirela esan zidaten herritar askok”.

Eta batu zitzaizkion. Anabel Armuetarengana jo zuen lehendabiz, musikari bila, eta lau soinu jole, bi biolinista eta txistulari bat ekarri zituen hark taldera: Elorri Irusta, Amaia Gorrotxategi, Laura eta Amaia Vegas ahizpak, Amaia Zapata, Iñigo Legorburu eta Anabel bera. Entsegu egunak ere lotu zituzten, eta jaietan zapi gorria jantzita irten ziren denak kalera, kantura. “Polita izan zen. Jaietan umorez ibiltzen da jendea, eta jende asko batu zitzaigun. Jendeak eskertzen ditu halakoak, bizitasuna ematen diotelako herriari. Ni ere horrexegatik nabil saltsa hauetan”. Lehen, kanturik gabeko afalosterik ez zela izaten aitortu du horren harira, eta debekatutako lekuetan ere kantuan egindakoa dela bota du bat-batean. “Almerian soldaduzka egiten geundela adibidez”.

“Gazteak behar ditugu”

Bistan da kantuak bizi duela. “Kantuak eta dantzak”, gehitu du berak. Atzera begira jarri, eta kanturako taldea sortzea Ezkarain bururatu zitzaioala azaldu du: “Barixakuro kantura irteten zela esan zidan lagun batek. Nora galdetu nion nik, eta ‘kalera’ erantzun zidan berak. Eta orduantxe ikusi nuen argia”. *Ochote* edo zortzikote bat sortzeko gogoa aspaldikoa zuen, eta hark esnarazi zion barruko harra. Tabernaz taber-



na kantuan ibiltzen ziren eibartar batzuen berri bazuen eta gustuko zuen plan hori. “Txapela albo batera jantzita edo txapelik gabe, baina geuk ere egin genezakeela pentsatu nuen”, bota du.

Zortzikotea barik hogeita bost lagun inguruko taldea da, baina, Elgoibarko kale kantariena. “Hogeita bost bat lagun izango gara beti-beti irteten garenak, baina talde irekia da gurea. Edonor etorri daiteke. Datorrela nahi duen guztia, guk gustura asko hartuko ditugu-eta. Dei berezia egin die gazteei. “Gazteak behar ditugu, gu adinean gora goazelako. Hori bai, 18 urte bagenitu bezala aritzen gara, orduko ilusio berarekin. Kantuan aritzeak gaztetu egiten du-eta”, zehaztu du.

Regina Arrieta eta Anabel Armueta aritzen dira taldea zuzentzen, “erritmoa markatzen”, eta sanbartolomeetarako bost bat kantu berri prestatu dituztela dio Arrietak. Ohi legez, kalera irten bezperan egingo dute entsegua, hilaren 27an, baina entsegu handiren beharrik ez da goela dio Arrietak: “Kantuan egiteak erakusten du kantuan”.

Barren

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik.

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

Faxa: ☎ 943 743 704

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 743 704

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

Argitaratzailea:





Noemi Otegi

Jaiak!!! Arraro sentitu naiz gaur, BARRRENETIK gure zutaberako gaia proposatu digutenean, umetan ikastolan andereñoak oporraldiei buruz idazteko esaten zuenean bezalaxe, baina tira, gai guztientean jaietari buruz aritzea ez zaigu batere zaila egingo, Ainara.



Ainara Sedano

Buuufffff! Ni aspaldian egon gabea naiz herriko jaietan, eta izan nintzen azkenengoetan onartu beharra daukat hondartzan izaten nintzela txupinazoko momentuan! Hau da, hau, zuk eta nik jaietari buruz eman behar dugun hitzaldia! A ze jubilatu pare! Esan beharra dago jaiak abuztuan tokatzen direla eta urtean ditudan opor luzeenak izanda, eta balantzaren alde batean jaiak jarri gero eta beste aldean bidai... bidaiak irabazten duela; gauza askoren gainetik, gainera! Eta aurten ere horretan nabil! Dena den, duela urte batzuk, bidaiatik abuztu amaiera aldera bueltatu nintzen. Jaietako gauren bat edo beste harrapatu nituen, eta ez naiz damutzen, ederki pasa genuelako.

Baina niretzako aldatu dira gauzak adinarekin, bai; Ez, hala

“Zein desberdin bizi ditugun jaiak adinaren arabera; ez da hala, Ainara?”

Zein desberdin bizi ditugun jaiak adinaren arabera; ez da hala? Agian berezienak nerabezarokoak dira. Gauzez lagunekin irteko gurasoan baimena daukazunean, tabernaz-taberna naturaltasunez ibili zaitezkeenean, eta are gehiago, lehenengo gaupasa egiteko baimena daukazunean! Oroitzen dut, bai, nire lehenengo gaupasa. Sekulako hotzez eguna noiz argituko zain egon nintzen, gaupasa egin nuela esan eta goxo-goxo ohean sartzeko irrikaz!

Lehenengo gaupasa egin ondorengo egunean, nekatu aurpegia jarri behar da, ahotsa urratuta izan behar da, eta oinak arrastaka eraman, inguruko denek jakin dezaten gaupasa eginda zaudela!! Ajea eduki gabe ere, aje galanta daukazula adierazi behar zaio munduari. Beranduago etortzen dira benetako biharamunak, damurako egunak, norbere buruari “berriro ez” zin egiteko egunak. Azken horiek dezentetan errepikatzen dira, eta zenbat eta gehiagotan errepikatu, seinale zure lehenengo gaupasa horretatik urrutiago zaudela. Eta ez urteak pasa direlako bakarrik, emozioa ere gutxitu delako baizik eta dagoeneko ez delako hain berezia gaupasa egitea. Bereziagoa da gauari tamaina hartzea eta behar den momentu justuan etxera itzultzea. Hori gertatzen zaizunean jada galdua zaudela!! Heldua zara eta jaiak erabat aldatzen dira!

“Niretzako aldatu dira gauzak adinarekin, bai; ez, hala ere, okerrera”

ere, okerrera, benetan egin nahi dituzun gauzak egiterantz baizik. Eta egia esan behar badizut, bada urteak aurrera egin ahala parranda gogo handiagoa izaten duen jendea ere. Nik bat edo beste ezagutzen ditut-eta! Urteekin jaietarako grina areagotzen zaien horiek, bai jauna! Baina ze arraio, inori kalte egiten ez dion bitartean egin dezala bakoitzak berea; nahi duenak parranda, eta nahi duenak (nik bezala), ohera, betiko “eh! Geratu beste trago bat!” entzun eta gero.


Ni ez naiz aurten jaietan izango, baina pasa dezatela hemen izango diren guztiek ederki, zentzuz parranda eginez (posible ote?) eta hasierako irrikak ez dezala hurrengo egunetarako gogoia agortu!



Elgoibarko Udala



Mendaroko Udala





PAULANER TXARRIDUNA

Jaietako mahaiak
erreserbatzen ditugu!



Menu bereziak!



Ermuaranbide 1, - Elgoibar - Tel.: 943 740 490

LAGUNAK KOLTXOI DENDA - TEXTIL HOGAR

ZATOZ GURE ERAKUSKETA BERRIA IKUSTERA!



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



MADIGAN'S

Jai zoriontsuak!

JOKU ARETOA



- Gosariak
- Ogitartekoak
- Razioak
- Sandwichak
- Entsaladak
- Postreak
- Plater konbinatuak



GIRORIK ONENA!

Ordutegia: igandeetan, 10:00etatik aurrera
Astehenetik larunbatera goizeko 7:00etatik aurrera

Bernardo Ezenarro, 2 behea
Tel.: 943 53 15 57



Arregitorre, 2
Tel.: 943 748 019 (Meka)
943 748 397 (EABHI)
www.elgoibarbhi.net

**ELGOIBAR ARREITURRE BHI
eta
MEKA GLHBI**



HERRI ESKOLA



Kalamua, 18
Tel.: 943 740 879



Jai zoriontsuak
opa dizkizuetel!

Bakarrik edo lagunarekin, baina egin!

Plaza erdira irteten zaren horietakoa zara? Ala nahiago duzu barra izkinatik begiratu, hankak apur bat mugituz? Bakarrik hobeto moldatzen zaren horietakoa izango zara beharbada, edo, akaso, gustuko duzun horri gerritik heltzeko aprobetxatuko duzu. Denerako aukera izango da jaietan. Beraz, bakarrik edo lagunarekin, baina dantzan egin!

ORIA TXARANGA

Abuztuaren 23an, 19:00etan

Tolosako Oria Txarangkak alaituko ditu kaleak San Bartolome bezperan. 1981ean sortu zen taldea, eta ordutik Euskal Herrian zehar aritu dira, jairik jai. Taldeko gehienak Tolosa, Andoain eta Lasartekoak ziren hasiera hartan, eta horregatik jarri zioten Oria Txaranga izena.



ITAKA

Abuztuaren 24an, 22:30ean Madalan

Zumaiako musika taldea da Itaka. 2009an etena egin zuen taldeak, eta *Berpiztuko naiz* diskoa kaleratu du 2010ean. Abesti zaharrak eta berriak uztartuko dituzte San Bartolome Eguneko kontzertuan.



AZABACHE MARIATXIAK

Abuztuaren 24an, 19:00etan kalejira

Mexikoko Monterrey herritik iritsiko da Azabache izeneko mariatxi taldea. San Bartolome egunean, beraz, Mexikoko doinuak entzun ahal izango dira arratsaldez herriko kaleetan, eta gauean, kontzertua eskainiko dute Plaza Handian. Bederatzi lagunek osatzen dute taldea. Tronpeta, biolin eta gitarra doinuekin alaituko dute El-goibarko patrioiaren eguna.



HOR KONPON ORKESTRA

Abuztuaren 23an, 23:00etan

Plaza Handian

Egungo musika taldeen abesti eta doinu ezagunak ekarriko ditu Hor Konpon orkestrak. Iaz ekarri zuten estreinakoz orkestra bat sanbartolomeetan, eta aurrean errepikatuko egin dute. Herriz herri ibili dira udan, eta Elgoibarko jaietako lehenengo eguna girotzeko ardura hartu dute.

HAITZAMA

Abuztuaren 25ean, 19:00etan Madalan

Ezkontza eta erromeria txikietan jotzen hasi zen Hartzama 1997. urte inguruan, eta ordutik, hamaika plaza jarri dituzte dantzan. Horixe da, hain zuzen ere taldearen helburua, eta Madalako parkea dantzan jartzeko doinu alai eta ezagunak ekarriko dituzte Txiki Egunean.



URBERU SAGARDOTEGIA

**Haragia eta arraina parrillan: berezitasuna
Astebukaeran zabalik**

Elorriaga auzoa - ITZIAR (Gipuzkoa) - Tel.: 943 19 92 37

PASAI TXARANGA

Abuztuaren 25ean, 19:00etan


Pasai txarangak 50 urte baino gehiago daramatza herrietako jaiak alaitzen. Musika latina, pasodobleak eta rantxerak jotzeaz gain, talde ezagunen bertsioak ere jotzen dituzte. Beraien musika saioetan ohikoak dira, besteak beste, Rolling Stones taldearen edo Sting abeslariaren doinuak.



EGAN

**Abuztuaren 25ean, 22:30ean
Plaza Handian**

Xabier Saldias kantari azpeitiarra da Egan taldearen ahotsa. Ohiko erromeria giroari kutsu berezia eskainiko diote. Euren abestekin batera, talde ezagunen euskarazko bertsioak egiten dituzte. Dantzariak ere badituzte taula gainean, eta Txiki egunean dantzan jarriko dute Plaza Handia.



IHESBIDE

Abuztuaren 27an, 22:30ean, Madalan

Elorriko musika taldea 2004an sortu zen. Ondo pasatzeaz gain, gustatzen zaienari eta, era berean, gustatzen ez zaienari buruz abesten dute. Gazteen Egunean izango duzue bizkaitarren musikaz gozatzeko aukera.



SKAKEITAN

Abuztuaren 27an, 22:30ean Madalan


Ska, Reggae eta punk doinuak ekarriko dituzte laukote donostiar horrek Elgoibarko jaietara. Madalako parkean aurkeztuko dute euren lana.



ESNE BELTZA

**Abuztuaren 27an, 23:00etan
Plaza Handian**

Xabier Solano dute buru, eta Etzakit, The Solanos, Joxe Ripiau, Izotz, MaldeOjo, Selekta Kolektiboa eta Su Ta Gar taldeetan aritutako beste zortzi musikarik osatzen dute Esne Beltza. Estreinako lanean, soinu, erritmo eta hizkuntzen arteko nahasketa egin dute. Gazteen Eguneko gaua girotuko du taldeak.



DJ GAUA

**Abuztuaren 28an, 22:30ean
Madalako parkean**

Kida Events taldearen eskutik, DJ gaua izango da zapatuan, Madalako parkean. Musika elektronikoa, biolin, saxofoi, txalaparta eta bertsolariekin nahastuta entzuteko aukera izango da.



Jasone
zerbitzu grafikoa

Ondo pasa jaietan!

- Lan komertzialak.
- Kartelgintza era guztietako tamaina eta euskarrietan.
- Ezkontza gonbidapenak
- Gabon zorion-gulunak, egutegiak, etab.
- Inprimaketa digitala

San Bartolome, 15 - behea • 20870 ELGOIBAR - Gipuzkoa
Tel.: 943 53 17 45 • jasone@jasonesg.com • www.jasonesg.com



karkizano

Ondo pasa Sanbartolomeak!

San Francisco, 14
Tel.: 943 740 549
Elgoibar



JON & SUGRAMAS

Abuztuaren 27an, 23:00etan Plaza Handian

Jon Gurrutxaga elgoibartarraren talde berria da. Lan horretarako Andoni Mujika elgoibartarrekin eta Ekaitz Garmendia eta Ivan Hernandez azpeitiarrekin batu da Gurrutxaga.

Zer ikusiko dugu Jon & Sugramas taldearen kontzertuan?

Gure emanaldian disko berriko kantuak izango dira nagusi. Horrez gain, lehen diskoa denez, errepertorioa rockaren klasiko pare batekin osatu dugu. Elgoibarko kontzertura, gainera, Fredi etorriko da, diskoan, hiru kantutan, hammond-a grabatu du, eta Elgoibarren kontzertu osoan arituko da gurekin.

Zer da zuentzako Elgoibarren jotzea?

Andoni eta biok elgoibartarrak garenez, emanaldi garrantzitsua da guretzat. Diskoa aurkezten Euskal Herriko hainbat antzokitan eskainitako kontzertuen ostean, udako kontzerturik garrantzitsuenetako bat izango da. Ez bakarrik herrian jotzen dugulako, baizik eta jakin badakigulako egun horretan jende dezente etortzen dela herriko jaietara, eta beraz, plaza garrantzitsua izango dela taldearentzat, proiektu berria ezagutzera emateko.

Animatu Elgoibartarrak zuen kontzertura joateko.

Diskoan entzuten den produkzio finari momentuko freskotasuna eta oldarkortasuna gehitzen diogu gure zuzenekoetan. Horrez gain, lehen aldiz hammond eta guzti agertuko gara taula gainean, beraz, emanaldi aparta izango delakoan gaude. Rock klasikoa gustuko baduzue, ederki pasako duzue!

ITZIARREN SEMEAK

Abuztuaren 28an, 22:30ean Gaztetxean

Mungiako hiru lagunek sortu zuten taldea, 2006an. Ska musika egiten dute, baina gustatzen zaizkien taldeen abestiak ere jotzen dituzte. Besteak beste, Negu Gorriak, Tijuana in Blue, Baldin Bada eta Hertzainak bezalako taldeen eragina izan dute.



ERDIZKA LAUETAN

Abuztuaren 28an, 23:00etan Plaza Handian

Erromeria taldea da Erdizka Lauetan. Folk, ari-arin, fandango eta euskal dantzak dantzatzeko aukera izango da. Baserritarren Eguneko gauean hankak mugitzeko aukera eskainiko dute.



ONDO
PASA
JAIK!

Santa Ana, 18
20870 Elgoibar
Tel.: 943 741 864

ARAMBURU

BTKIDENDA

Ondo pasa jaiak!

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar

ETXEPE

Lan
berriak

T: 943 741 297 / 943 740 664 www.etxepe.com
F: 943 744 321 etxepe@etxepe.com

ZURE ALDE



Jai zoriontsuak!

Komunitateen, ugazabeen aholkularitza.
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Inaki Gil Azpilicueta

Jausoro Plaza, 3 behea
Tel.: 943 531 351

Ignacio Vazquez Gonzalez

e-mail: zurealde@telefonica.net
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)



KEBAB TXOHAN JATETXEA



Aukeratu pihantecorahin nahiz pihanterik gabe!

Janari azkar eta zapoetsua

Plater konbinatuak eta menuak ere baditugu.

✓ **Dohram**



✓ **Lahmacun**



✓ **Kebab**



✓ **Patatak,
Entsaladak,**



**San Frantzisko, 58 behea • ELGOIBAR
Tel.: 688 634 356**



Eramateko eskaera egin dezakegu!



Pedro Muguruza etorbidea, 9 behea - Tel.: 943 031 632

ORDUTEGIA:

Astelehena-osteguna: 9'00-24'00
Ostirala: 9'00-03'00
Larunbata: 10:00-04'00
Igandea: 10:00-24:00

SUKALDEKO ORDUTEGIA:

Astelehena/asteartea: 9'30-11'30
Asteazkena-Ostirala: 9'30-13'30 / 19'30-22'00
Larunbata: 10:00-15'00
Igandea: 10:00-15:00 / 19'30-22'30



JAIETARAKO MENU BEREZIA!

Aterpe TABERNA Ondo pasa jaiak!



HIZKUNTZ SOLUZIOAK www.ils.es

IRAILTIK HASITA 2010-2011 KURTSOKO IKASTAROAK

- Maila guztiah.
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Talde murriztuak, enpresako klaseak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

ils@ils.es
Azuze Auzoa 1 (IIMH)
Upatz Zaharra, 12 beheak
20670 ELGOIBAR

ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
 - Teknikoa (makina-erreminta).
 - Komertziala.
 - Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta halitatezkoa.
- Prezio Lehiakorak.

Ondo pasa jaiak!!

Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino



INDUSTRY
LANGUAGE
SERVICES



Sanbartolomeak 2010

Egitaraua



Jose Manuel Esnalek irabazi du sanbartolomeetako kartel lehiaketa, bigarren urtez jarraian, eta 600 euroko saria eskuratu du. 11 lagunek hartu dute parte aurrean, eta Francisco Javier Isastirentzat izan da sari berezia (300 euro). Umeen lehiaketan, parte-hartzea zertxobait txikiagoa izan da. Zazpi lagunek parte hartu dute, eta denak saritu ditu epaimahaiak: Lide Baz, Maria Ruiz de Gauna, Nora Bastida, Mikel Vallejo, Nerea Bastida, Amets Isasti eta Gorka Baz.

ESTUDIOS ARRILLAGA



**PROIEKTU ETA ERREFORMAK
GREMIOEN ZUZENDARITZA
ALTZARIGINTZA OSOA**



Arragueta 12 - EIBAR - Tel.: 943 200 698
Errosario 15 - ELGOIBAR - Tel.: 943 744 019



DEBAPE
inprimategia
komunikazio grafikoa

ONDO PASA JAIK!

Liburuxka, publizitate, papergintza
komertzial, kartel, ezkontza gonbidapen,
etab..-en diseinu eta inprimaketa.
Inprimaketa digitala

SIGMA Industrialdea • Xixilion 2 - 2. solairua, 7. lokala
Tel.: 943 74 40 58 • Faxe: 943 74 41 78
20870 **ELGOIBAR** (Gipuzkoa)
debape@debape.com • www.debape.com

SANBARTOLOMEAK 2010

ABUZTUAK 21, *zapatua*

19:30 ESKUBALOI PARTIDA

Arrate eta H.B.C. Nantes taldeen arteko norgehiagoka, Sanlo ETKk antolatuta. Olaizaga kiroldegian.

ABUZTUAK 22, *domeka*

19:00 ARGAZKI ERAKUSKETA

Kirol Argazkien V. Lehiaketako lanen erakusketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan. Abuztuaren 30era arte. Egutero, 19:00etatik 21:00etara.

Ondoren, jaietako kartel lehiaketaren eta kirol argazkien lehiaketako sari banaketa, Kultur Etxean.

22:00 IRUNGO BANDA

Irungo bandaren kontzertua, San Bartolome parrokiari



San Bartolome Bezpera

ABUZTUAK 23, astelehena

**9:00 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI
LASTERKETA**

Elite mailako amateurrentzat (19-23 urte). Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Plaza Handian.
Helmuga: Santa Klaran, 12:00etan.

13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA

Udaletxean Ikurriña jasoko dute jaiak hasteko.
Plaza Handian.

Ondoren, Mauxitxa txarangaren kalejira.

16:00-20:00 HAURENTZAKO PARKEA

Plaza Handian. (Eurria egiten badu, Sigman).

16:30 SORPRESA

Zaharren biltokian.

17:00-18:30 ERRALDOI eta BURUHANDIEN KALEJIRA

Herriko dultzaineroekin eta zezen-zikletekin batera.

18:00 FUTBOL PARTIDA MINTXETAN

CD Elgoibar-Anaitasuna. Antolatzailea: CD Elgoibar.

19:00 KALEJIRA

Oria txarangarekin.

20:00 SALBEA PARROKIAKO ABESBATZAK ABESTUTA

Udal Txistulari Taldeak lagunduta, Udalbatza San Bartolome parrokiara joango da, alkate soinua joz.

23:00 KONTZERTUA

Hor Konpon orkestrarekin, Plaza Handian.



ARNOPE NAVA
IN PRIMATEGIAK
MUTRIKU 943 603 194 - ELGOIBAR 943 744 451
nava@euskalnet.net

**ONDO PASA
JAIXAK....**

HAIR'S
ILEA PAINDEGIA
San Bartolome, 6 behea
Tel.: 943 531 279

Astearteetan jubilatuoen eguna:
Orraztu 8 €
Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

Onda pasau jaiak!

estetikaalire

- * Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- * Ongizate tratamenduak
- * Masajeak
- * Fotodepilazioa
- * Mikropigmentazioa
- * Manikura
- * Solariuma
- * ...

Ugazio zehaztu, 1 behea
Tel.: 943 531 636
Elgoibar

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

San Bartolome Eguna

ABUZTUAK 24, martitzena

9:00 ELGOIBARKO DULTZAINEROEN DIANA

9:45 UDAL TXISTULARI TALDEAREN DIANA

10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA

10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN PROZESIOA
Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantza taldeak hartuko dute parte.



Jarraian, SOKADANTZA Haritz Euskal Dantzari Taldearekin eta Udal Txistulari Taldearekin, Plaza Handian.

Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA
Plaza Handian.

16:30-21:00 HAURRENTZAKO PARKEA
Plaza Handian (euria egiten badu Sigman).

17:30-19:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA
Herriko dultzaineroekin eta zezen-zikletekin batera.

Ondo pasa jaiak!





18:00 PROFESIALEEN ESKU-PILOTA PARTIDAK
Ikastolako frontoian.

19:00 KALEJIRA
Kalejira Mariachi Azabacherekin.

23:00 MARIACHI AZABACHEREREN KONTZERTUA
Mariachi Azabache taldearen kontzertua, Plaza Handian.



OSASUN GIDA



MEDIKUNTZA ALTERNATIBOAK

Kemen Belardenda. Naturopata, Iridiologoa eta Homeopata.

(Pisu kontrola, "Dieta erraza" mehetzeko tratamendua... Bach loreak, P.N.L., janari biologikoak, nutrizio eta osasun ikastaldiak). Familia konstelazio tailerrak. Quantum scio (alergiak...). Naturopata eta makrobiotika kontsultak ordua aurrez hartuta.

San Bartolome, 29
Tel: 943 744 031
Egunero: 9:00-13:00
16:30-20:00

Sanatana Dharma Yoga Elkarte

Urasandi, 9
Tel: 943 748 593 (ldoia)
685 722 131

Astearte eta ostegunetan:
10-11:30/13:00-14:00/15-16:30/
18-19:30/20-21:30
Mendaro: Astelehen eta asteazkenetan: 10-11:30/15-16:30
Astearte eta ostegunetan:
20:00-21:30

Pakene Ongizate Integraleko zentru berria

(Azterketa biologikoa eta osteopatia, Naturopatia, Homeopatia, Fitoterapia Txinatarrak, Nutrizio ortomolekularra, Elikagaien jasan ezintasunak, Bach-en loreak...). Tel: 943 254 505

FISIOTERAPIA

Ainhua Fisioterapia

Jausoro, 6 behea.
Goiz eta arratsaldez.
Tel.: 943 531 953 / 669 565 745

Andoni Schmidt Larrañaga

Etxerako Fisioterapia

Jende nagusia, neurologia, errehabilitazio orokorra, masajeak. Ekipo portatila.
Ordua eskatu.
San Roke 8, behea
Tel.: 689 926 016
Kontsulta ere badaukagu

MASAJISTAK

Victoria Iraegi

(Esku-terapiak: kiropraxia, dranatzaile linfatikoa, osteopatia, kirol masajea (bendaje funtzionala eta "taping neuromuskularra", lehiaketa bendajea).
San Frantzisko kalea, 40 (atzealdea) -
Tel.: 943 740 770
Astelehenetik Ostiralera :
8:00 / 14:00

ODOLOQDAK

Oinberri

Errosario kalea, 25
Tel: 943 741 795
Astelehenetik ostiralera:
9:00-13:30 / 15:00-19:30

Iñigo Arrillaga Yudego

- Hanken afekzioen terapia.
- Neurria egindako plantilak.
- Hanka diabetikoen zainketa.
- Ordenagailuaren bidezko hankaren azterketa.
San Frantzisko kalea, 20 behea - Tel: 943 741 645
Ordutegia: 9:30-13:30
15:30-19:30

ORTOPEDIAK

Itziar Sarasketa

San Frantzisko, 12
Egunero: 9:30-13:00 /
17:00-20:00 -
Tel: 943 74 35 62

OPTIKAK

Ikus optiko-optometrista

San Bartolome, 10
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 743 734

Uzuri

(Optometria, tonometria, kontaktologia, audiometria).
San Frantzisko, 21
Egunero: 9:30-13:00
16:30-20:00
Tel: 943 740 359

HORTZ KLINIKAK

Irale

Errosario Kalea, 7 behea (Elgoibar) - Tel: 943 743 679
Zeharkalea, 8 behea (Ermua)
Tel: 943 177 134
irale@irale.com - www.irale.com

Leku eder

Elena Herrero Lobo.
Aita Agirre enparantza, 5 behea.
Tel: 943 530 053
lekueder@infomed.es

Beitia Arriola

- Odontologia orokorra eta ortodontzia
- Haurren Hortzagin programa
- Panoramikak eta telerradiografiak
Trenbide kalea 21, behea
Tel: 943 531 869



ONDO PASAU JAIXAK!



SANBARTOLOMEAK 2010

Txiki Eguna

ABUZTUAK 25, eguaztena

7:30 DIANA

Mauxitxa txarangarekin eta Herriko dultzaineroekin.

Ondoren, SOKAMUTURRA, Arnoren zezenekin.

Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

12:00 HAURRENTZAKO ZEZENTXO eta PONIAK

Plaza Txikian.

12:00 MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA



18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Ikastolako Frontoian.

**18:30 ZEZEN ETA BETIZU ENBOLATUAK
ERREKORTATZAILEEKIN ETA OZTOPOEKIN**

Plaza Txikian.

19:00 KALEJIRA

Pasai txarangarekin.

22:30 DANTZALDIA

Egan taldearekin, Plaza Handian.

Umeen Eguna

ABUZTUAK 26, eguna

10:30 HAURENTZAKO ENTZIERROA
King-Kongetik Plaza Txikiraino.

10:45 ZEZENTXOAK ETA PONIAK
Plaza Txikian.

11:30-13:45 MARRAZKI LEHIAKETA
Elizako arkupeetan. Hiru adin talde izango dira: 4-6 urte, 7-10 urte, eta 11-14
Gaia: Zure ametsak
Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea

14:00 HAUREN BAZKARIA
7-14 urte bitartekoentzat, elizako arkupeetan.
Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du.
Edaria eta postreak banatuko dira.

14:30 HAURENTZAKO PARKEA
Plaza Handian.
(Euria egiten badu Sigman).

18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Plaza Handian.

Ondoren, ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA
Mauxitxa txarangarekin eta zezen-zikletekin.
Mozorrotuta agertzera deitu dituzte haurrak.

20:00 UMEENTZAKO IKUSKIZUNA
Zirko Iluna ikuskizuna, Hortzmuga taldearen eskutik. Plaza Handian.



USATORRE
Taberna
.....
Jai zoriontsuak igaro!

Biak
Jai zoriontsuak!
ileapaindegia
San Inazio, 4 • Tel.: 943 74 27 25

KIROLDEGIKO TABERNA *Ondo pasa jaiak!*
Sanbartolomeetan bazkari eta afariak

San Roke 1, Tel.: 620 13 69 58 Aurretik enkarguak egin behar dira

Olaia
estetika
ONDO PASA JAIK!!!
San Inazio, 4 beheko • Tel.: 943 74 27 25

- Garbiketak
- Makilajeak
- Aurpegi-tratamenduak
- Gorputz-tratamenduak
- Solariuma
- Masajeak
- Manikurak
- Depilazioak
- Laserra

Upaiz Zaharra, 6
Elgoibar
on@oninformatika.com
tel.: 943 741 848
On
informatika
Ondo pasa jaietan!
Sartu gure web orrian, edota etor zaitez gu ezagutzera!
www.oninformatika.com

Imprenta Arrillaga
Ondo pasa jaiak!
Inprimaketa: Offset
Digitalean
Ezkerreko gortidopereak
Hala eta orriariak
Bista kartelak
Karteak - etiketak
e.a.
Fotokopiak
Koloretan
Txuri-beltzean
Trenbide Kalea, 13 - behea
Tel.: 943 74 01 87 e-posta: arrillagasl@euskalnet.net

Gazteen Eguna

ABUZTUAK 27, larixakua

8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

Ondoren, SOKAMUTURRA Arnoren zezenekin.

Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Gure Bide, Herri Gain eta Goiko Errota elkarteek eta Batzokiak banatuta.

12:30 GOITIBEHERAK

Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izena ematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoek baimena aurkeztu beharko dute.

Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA.

17:30-20:00 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN ENBOLATUEKIN


Plaza Txikian. Antolatzailea Zuhaitz aisialdi Taldea.

19:00 KALE IKUSKIZUNA

Trapu Zaharrak taldeak *Kanping Renove* ikuskizuna eskainiko du.

23:00 KONTZERTUA

Esne Beltza eta Jon & Sugramas rock taldeen kontzertua, Plaza Handian.



Ondo pasa
sanbartolomeetan!

PSE-EE



Baserritarren eguna

ABUZTUAK 28, *zapatua*

9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGIETORRIA
Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Taldeak harrera egingo diete Nafarroa Plazan.

Jarraian, BALTZOLA ANAIK TRIKITILARIEN KALEJIRA

10:00 EUSKADIKO LIMUSIN GANADUAREN TXAPELKETA
Plaza Txikian.

11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTAKETA
Plaza Handian, Sallobente elkarteak antolatuta.

11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA
Nafarroa Plazan. Antolatzailea: Kalamua elkarteak.

12:00 KALEJIRA
Elgoibarko kale kantariak alaituko dituzte kaleak Euskal Herriko abesti herrikoekin.

13:30 GAZTA LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Nafarroa plazan.

14:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Plaza Handian.

14:30 BASERRITARREN ANAIARTEKO BAZKARIA
Sigma jatetxean, trikitilariak eta bertsolariak girotuta.

17:00 BALTZOLA ANAIK TRIKITILARIEN KALEJIRA

18:00 KALEJIRA
Elgoibarko kale kantariak alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoekin.

18:00 SAN BARTOLOMEETAKO HARRIJASOTZE TXAPELKETA
Plaza Handian. (Euria bada, Ikastolan).
Antolatzailea: Kalamua elkarteak.

Jarraian, GANADU LEHIAKETAKO SARI BANAKETA
Nafarroa Plazan.

22:30 DJ GAUA
Kida Events, Madalako parkean.

23:00 DANTZALDIA
Erdizka lauetan taldearen dantzaldia Plaza Handian.

Ondo pasa jaiak!

IRATXO
ROCK-KAFEA

San Frantzisko, 41 · Tel. 943 74 02 57

Tel.: 943 741 011

LARRAÑAGA
A U T O E S K O L A

- IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ
- SENTSIBILIZAZIO ETA BIDE BERREZIKETAKO IKASTAROAK

Gaindi ezazu motorraren teorikoa 16 urte bete aurretik eta autoaren azterketa teorikoa 18 urte bete aurretik!

Zatoz informazio eske!

ASESORIA
GOAR

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoria laborala
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea
Tel: 943 742 674 / 943 740 234
Faxa: 943 742 129
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
asesoriagoar@euskalte.net

Txintxo
INMOBILIARIA

San Bartolome, 2 behea
20870 Elgoibar (Gipuzkoa) Tel: 943 742 674

Jose Angel Zabala

MAHASTI



Urdaitegia eta arlandegia

Merkatu plaza, 30, 33, 34 • 615 76 03 72

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189



PINTURAK
PEDRO PEREZ BERISTAIN

Xibilion, 2 - 3. sotoa 943 74 35 52 - 74 27 88

KOMUNITATEAK ETA FATXADAK - BERRIZTATZEAK - PINTAKETA



ZAZPI

ONDO PASA JAIAK!

INFORMATIKA

Bernardo Ezenarro, 15 beheko
Tel. / Fasa: 943 74 37 87
E-mail: zazpi@telefonika.net

28670 - ELGOIBAR (Gipuzkoa)



CORDON VILARCHAO

DEKORAZIOA

Rango eta barmeko estaldua
Zolak ezartzeak
Lantekura: eguz, aluminio, PVC,
Pintura akriliko

San Roke, 7 beheko
Pel. Glaso - Glasape kalea, 18 - 25 eta 26 modurak
Tel. 943 740 570

NORFO SL.

Ondo pasa jaiak!

- ELKARTEEN ALDAKUNTZA, ELKARTZEA ETA ERAKETA.
- LAN, KONTABILITATE eta FISKAL AHOLKULARITZA.
- ALOKATZE KONTRATUAK
- JUBILAZIOA (Pentsioak)

PM Urruzuno, 6. Tel: 943 74 31 40 Faxa: 943 74 41 23

SANBARTOLOMEAK 2010

Jubilatuena Eguna

ABUZTUAK 29, domeka

8:00 IDIARENA

Elgoibarko dultzaineroekin

Jarraian, SOKAMUTURRA, Arnoren zezenekin.



12:00 HEGALUZE PARRILADA

Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Nafarroa Plazan. Antolatzailea: Danborradaren Batzordea.

Ordu berean, ZEZENTXOAK ETA PONIAK

Plaza Txikian.

12:30 JUBILATUEN BAZKARIA

Olaizaga kiroldegian, Eguren orkestrak girotuta.



Egitaraua



17:30-19:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK
Dultzaineroekin eta zezen zikletekin.

19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA
Plaza Handian.

Ondoren, SOINU ZAHAR DANTZAK
Antolatzailea: Haritz Euskal Dantzari Taldea,
txistularien bandarekin elkarlanean.



ESKURA EZAZU TXANKAKUA TXARTELA



TXANKAKUA txartelarekin erosterakoan, puntuak bildu eta opariak irabazko dituzu.

Puntuak katalogoa

- Doakoa da.
- Bankuz aldatu gabe.
- Bildu puntuak erregaluekin trukatzeko.
- Deskontuak urteko hilabete jakin batzuetan.

AGIRRE SASTRERIA	740341
ALIRE ESTETIKA	531636
ARANBURU BITXIDENDA	742535
ARAURI LURRINDEGIA	741789
AZKUE ARGAZKI DENDA	740848
CABA ASTIGARRAGA	743268
DORI URDAITEGIA	741192
ECENARRO MERZERIA	742619
FARMA APRAIZ	743906
FERPI MODAK	740815
G & M JANTZIDENDA	053478
GARATE JANTZI-DENDA	741129
GARBINE ESTETIKA	743132
GOIARA DROGERIA	741133
IBAMAR ITURGINTZA	647463436
IKUS OPTIKA	743734
IRIONDO ALTZARIAK	741234
IRIONDO KIROLAK	740956
KALA LORADENDA	744616
KARKIZANO	740549
LANBROA	740806
LANDA HARATEGIA	742758
LEIGAR ELEKTRAGAILUAK	740054
LETE	744199
LIMBOK	531068
LUVIK OINETAKOAK	744345
MG BURINDEGIA	740831
MURUAMENDIARAZ	740345
ONGI ITURGINTZA	254622
ORTOPEDIA ITZIAR SARASKETA	743962
OSORO OINETAKOAK	740235
OBTARKU ARGAZKI DENDA	740848
OBTARUKA OINETAKOAK	030239
PATXI HARATEGIA	743904
PITXINTXU	743206
SARA JANTZIDENDA	743555
SKANDALO KORTSE-DENDALENTZERIA	743995
SOFTLAN	748105
SUMOFIC	744102
UZURI OPTIKA	740359
XIGORTZE OPARIDENDA	744341
ZAZPI INFORMATIKA	743787
ZELETA BARAZKIAK	743022
ZIUR	531205

Diru laguntzailea:

EUSKO JAURKILARITZA



GOBIERNO VASCO

INDUSTRIA, BERRIKUNTZA, MERKATARITZA ETA TURISMO SAILA



**Ondo pasa
Sanbartolomeak!!**

**ARTISAU-OGIA
EGUR-LABEAN EGINDAKOA,
KONTSERBAK ETA
ARDOAK**

San Bartolome 28
Tel.: 680 724 060



IHARDUN
MAQUINAS ESPECIALES, S.L.



Makina bereziak

Albitxuri, 1 • 3. pabilioia, K-L
Tel.: 943 74 44 66 • Faxe: 943 53 14 74
ihardun@ihardun.net • www.ihardun.net



PNEUMAX, S.A.

**AUTOMATIZAZIO
NEUMATIKORAKO
OSAGIAK**

Olaso, 15, Pab. 52-53-54 • 20870 ELGOIBAR
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74
Telefax: 943 74 40 76
E-Mail: pneumax@pneumax.es
Web: www.pneumax.es





MAPFRE



*Jai zoriontsuak
opa dizkizuegu!*

San Frantzisko, 40 - Tel: 943 74 05 82 / 943 74 14 04 - Faxa: 943 74 17 07
E-posta: patxiza@mapfre.com



660 52 25 87
943 74 88 43

KU KOLOREA


ONDO PASA JAIK!!

- BARNE DISEINUA
- PINTURA TEKNIKA DESBERDINAK
- IZTUKUAK
- FATXADAK ZAHARBERRITZEA
- OHOLTZA FLOTAGARRIA

Urasandi 26, behe
20870 ELGOIBAR
Tel.: 660 522 587 - 943 748 843

Gazteen egunean errekan behera

Gazteen Eguna indartzeko saiakera egin dute aurten Gazte Asanbladak eta herriko hainbat gaztek. Gazteen parte-hartzea sustatzea dute helburu, eta horretarako, koadrilen arteko gin-kana antolatu dute. Koadrila bakoitzak lau probatan hartu beharko du parte: marmitako lehiaketan, herri kirolean, erreka jaitsieran eta soka saltoan. Puntu gehien batzen dituen taldeak Elgoibarko produktuez osatutako otarre bat irabaziko du. **BARRENEK** eskerrak eman nahi dizkio Iñaki San Martin (Soarte) argazkilaritari, erreportaje hau egiteko materiala lagatzeagatik.



Txankakuako zubia jendez gainezka egon zen 1990ean, erreka jaitsiera ikusteko.

Berrikuntzekin dator aurten Gazteen Eguna, eta ekintzarik berritzaileena erreka jaitsiera izango da. Hiru urtean antolatu zuten erreka jaitsiera, 1989tik 1991ra, eta hurrengo urteetan egitarautik kendu zuten. Inork ez daki ziur zein izan zen ekintza arrakastatsu hura egitarautik kentzearen arrazoia, baina Deba ibaiko ura kutsatuta egoteak izango zuen zerikusia erabaki hartan. Gazte Asanbladakoen eta herriko beste zenbait gazteren ekimenez, abuztuaren 27an, erreka jaitsiera egingo da berriz, 19:30etik aurrera.

Ur zikina

Hogei urte inguru pasatu dira erreka jaitsiera azkenekoz antolatu zenetik. Urteak ez dia alferrik pasatzen, eta, denbora horretan Deba ibaiaren egoerak nabarmen egin du hobera. Garai hartako partaideen lanik handiena errekan pilatzen zen zikinkeriatik aldentzea zela gogoratzen du Manolo Santosek. 1989ko proban hartu zuen parte, Imanol semearekin eta Jesus, Marian eta Arkaitz ilobekin. Alabak ere parte hartzeko asmoa zeukan hasieran, baina azkenengo momentuan atzera egin zuen: "Ez zen ur zikin hartan sartzen ausartu". Hala ere, hurrengo urteetan la-

gunekin hartu zuen parte Idoia Santosek.

1991n eta 1992an egin zuten Idoia Santosek eta bere lagunak erreka jaitsiera. 15 urte zeuzkaten, eta koadrilako Mirariren aitak lagundu zien lehenengo aldian txalupa egiten. Kea botatzen zuen trenan egin zuten, eta lehenengo saria eskuratu zuten. Oroitzapen onak dituzte, baina ur azpian egon zitekeen zikinkeriak inpresio handia egiten zuela oroitzen dute.

Garai hartan ez zegoen kolektorerik ibaian, eta etxeetako komunetatik zuzenean ibaira joaten ziren zikinkeria guztiak: "Etxeetatik ahalik eta gehien urruntzen saiatzen gi-

nen. Kaka mokordoak uretara nola erortzen ziren ikustea ez zen samurra”, esan du Manolok. Behin uretan sartuta, baina, aurrera egin behar zen. Sigmako zubian hasten zen ibilbidea, eta Madalan bukatu. Bi udaltzain egoten ziren partaideak iristeko zain, eta mangera batekin garbitzen zituzten. Hala ere, etxera joan eta bainua hartzea ezinbestekoa zela gogoratzen du Manolok: “Eskuetako eta oinetako azazkalak beltzak irteten ziren uretatik”.

Bigarren saria

Sehaska estiloko txalupa egin zuten, eta ume eta guzti egin zuten Sigmatik Madala arteko bidea. “Toki askotan ez zegoen ur nahikorik, eta txalupari bultza egin behar izaten genion”. Usuako parketik Txankakuara arteko tartean egoten zen ur gehien, baina bes-tela, ibilbide gehiena txalupari bultzaka egiten zuten. Ibilbidea nola edo hala amaitu egin behar zela gogoratu du, baina ez zen lasterke-ta izaten; hau da, ez zuen lehenengo iristen zenak irabazten. Txaluparen eta partaideen



Idoia Santos eta haren koadrilakoak, 1992ko erreka jaitsieran. Opari kaxa erraldoia eta baserri bat egin zituzten.

originaltasuna saritzen zuten, eta bigarren saria eskuratu zuten. 10.000 pezeta eman zizkieten, eta Getariako Astillero jatetxera joan ziren ospatzera: “Osabak jarri zuen falta zen dirua, baina sekulako itsaski-jana egin genuen”. Esperientzia polita izan zela gogo-

ratu du, baina ez zuten errepikatu: “Oso ondo pasatu genuen, baina sekulako zerrikeria izan zen”. Jendeak “sekulakoak” esan zizkion Manolori ur zikin hartan ilobekin eta semearekin sartzeagatik, eta behin parte hartuta nahikoa izan zen beraientzat.

Alzolako Urak, bezero eta bizilagunei San Bartolome jai zoriontsuak opa dizkizue!

Jai zoriontsuak

ALZOLA

www.alzola.com

Arrakasta handiko ekintza

Ekintza arrakastatsua izaten zen erreka jaitsiera. Herritarrak zubietan pilatzen ziren, partaideei animuak emateko eta barre apur bat egiteko. "Ikusleek ondo pasatzen zuten, baina guk hobeto".

Manolo Santosek herriko jaietan parte hartzeko ohitura izan du beti, eta erreka jaitsiera antolatu zuten estreinako aldian

ere ez zuen birritan pentsatu. Ilobekin jotzen ziren garai hartan oporretan, eta haiek eskatuta animatu zen erreka jaitsieran parte hartzera. Gizon "folklorikoa" eta festazalea dela esan du, eta horrelako ekintzetan parte hartzea gustatzen zaio. Horren harira, urte batean ihauterietako moztorro lehiaketa irabazi zuela ere zehaztu du.

Aurtengo jaietarako antolatu duten jaitsiera ere begi onez ikusten du, eta jende asko erakarriko duela uste du. "Ilobek edo semeak parte hartzeko esango balidate, berehala esango nieke baietz". Ura askoz garbiago dago, eta jendea parte hartzera animatuko dela uste du, azken batean, herriko jaietan parte-hartzea ezinbestekoa delako.



Manolo Santos, semearekin eta ilobekin 1989ko erreka jaitsieran.



Umorea ez da sekula falta izan erreka jaitsieran.

Txosna bat gutxiago, baina gaztetxea zabalik

Lau txosna jarriko dituzte aurten Madalako gunean, azken urteotan baino bat gutxiago. Gazte Asanbladak txosna jarri ordez, gaztetxea jaietako egun guztietan zabalteko apustua egin du, Madalako Jai Batzordeko kideek jakinarazitakoaren arabera. Era berean, Gune Askeko egitaraua ere bi guneetara zabaldu dute, eta Madalako parkean eta gaztetxean egingo dituzte ekitaldiak.

Urtero bezala, 18:00etako txupinazoarekin hasiko dituzte jaiak, eta une horretatik ez da aspertzeko aukerarik izango. Elkartasuna eta festarako gogoia ez daudela krisian esan dute antolatzaileek, eta ahalik eta egitarau osoena prestatzen ahalegindu dira. Azken bi urteotan antolatu duten karaokeari atsedena emango diote aurten, eta horren ordez, saltsa ikastaroa eskainiko dute. *Jaietan ere altxatu zure bandera* idatzi dute txosnetako edalontzietan, eta jendea festara eta lan apur bat egitera gonbidatu nahi dute. Azkenik, jaietan ere espetxean daudenak gogoan izango dituztela adierazi dute.



23 ASTELEHENA

18:00 Jaien hasiera
Ondoren, Elektrotzaranga
20:00 Saltsa ikastaroa

24 MARTITZENA

22:30 Itaka eta Munlet taldeen kontzertua

25 EGUAZTENA

15:00 Preso eta iheslarien aldeko bazkaria.
19:00 Haitzama taldearekin dantzaldia
23:00 Haitzama taldearekin dantzaldia

26 EGUENA

17:00 Musaldia
22:00 Hanka Hutsik ikuskizuna, gaztetxean

27 BARIXAKUA

Eguerdian, txaranga-poteoa
Jarraian, marmitako lehiaketa
15:00 Bazkaria (marmitako jana)
Arratsaldean, herri kirolak
19:30 Erreka jaitsiera
Arratsaldean, herri kirolak
22:30 Ihesbide eta Skakeitan taldeen kontzertua
Tartean, soka-saltoa, koadrilaka
Amaieran, sari banaketa

28 ZAPATUA

20:00 Manifestazioa
22:30 Itziarren Semeak taldearen kontzertua, gaztetxean.

dgraff
komunikazio grafikoak

Ondo pasa JAIXAK!

Santa ana, 8
201870 Elgoibar | Gipuzkoa
Tel. Fax 943 74 12 59

e-mail d-graff@d-graff.com
www.d-graff.com

BOLINTXO
OBINTEGIA

SAN FRANTZISKO, 17 ELGOIBAR 943 74 33 78

Ondo pasa San
Bartolome jaiak!

75 urte, ahosabaiak gozatzeko



Koldo Muruamendiaraz, Jesus Santiago, Josetxo Etxeberria, Jose Mari Muruamendiaraz, Jexux Ezenarro, Juanjo Baztarrika eta Aitor Viñaras.

Argaltzeko dietei jai emateko egunak dira sanbartolomeak. Gozatzeko egunak dira. Eta gozarazten trebeak dira Muruamendiaraz gozotegikoak. Sanbartolomeekin lotura estua dute, gainera, aspalditik. Mauxitakoek urtero egiten dute geldialditxo gozotegi aurrean, eta Muruamendiaraztarrek lantegia San Bartolome kalean zutenean, gaupasan zebiltzanek ere hantxe egiten zuten etxeratu aurreko azken geldialditxo. Sokamuturreko zezenek ere nahi baino gehiagotan egin diete bisitatxo.

Ainara Argoitia

Sigmako industriagunera iritsi eta ezagun-ezagun da non dagoen Muruamendiaraz gozotegiaren obradore edo lantegia. Hango usainak ez du zalantzarako tarterik lagatzen.

Koldok zabaldu digu atea, Muruamendiaraz abizenari eusten dion gozogile gazteenak, eta eskulan finean topatu ditugu gainerako langileak, pastak prestatzen. Izan ere, mokadutxo batean jateko modukoak izan arren,

lan handia dute pastek, besteak beste, banan-banan egin behar direlako. Mimo handiz ari dira lanean, eta baliteke horixe izatea Muruamendiaraz gozotegiak 75 urte bete izanaren sekretua.

Gabi
jatetxea

Ondo pasa jaixak!



**Egin erreserba telefonoz
San Bartolome jaietarako**

Nafarroa enparantza z/g • Tel.: 943 741 230

Maria Baztarrika eta Jose Ramon Muruamendiaraz senar-emazteek sortu zuten gozotegia, gerra aurreko urtean, 1935ean. San Frantzisko iturri ondoko lokal batean jarri zen Elosutik (Bergara) Elgoibarrera etorritako bikote gaztea, gaur egun Caja Rural banketxea dagoen horretan [1943an aldatu ziren San Bartolome kalera]. Jose Ramon Muruamendiaraz gozogilea zen, baina 36an gerra lehertu zenean, armak hartzera behartu zuten eta Gabriel Gabilondok, Gabi jatearearen jabea izandakoak, ordezkatu zuen aldi batez. Garai hartan, nolana ere, ezinezkoa zen gozoak saltzetik bakarrik bizitzea, eta, horregatik, denetik saltzen zuten denda. "Orduan pastelak erostera isilpean joaten zen jendea, gerra ondorenean pastela jatea luxua zelako. Egin ere, astean behin egiten zituen aitak, jairako", esan du Pilar Muruamendiarazek. Aukera handirik ere ez zen egoten. "Errelempagoak, bizkotxoak eta beste pare bat izaten ziren orduan", gehitu du Juanjo Baztarrika gozogileak, Muruamendiaraztarren lehengusuak. Jose Marik hartu zion erreleboa aitari, zortzi neba-arrebetan laugarrenak, baina etxeko denak aritzen ziren guraseoi laguntzen. "Umeak ginen, eta lan txikiak ematen zizkiguten. Malbaviskoak batzea eta halakoak", esan du Isabelek.

70 klasetik gora

Gaur egun, berriz, pasta, pastel, tarta eta gainerakoak batuta, 70 produktu baino

gehiago ekoizten dituzte Sigman duten lan-tegian. Goizeko laurak pasatxoan hasten da Juanjo bera lanean, eta bata bestearen atzetik sartzen dira gainerakoak: Jexus Ezenarro, Josetxo Etxeberria, Jesus Santiago, Aitor Viñaras eta Koldo Muruamendiaraz bera. Izan ere, 8:00etarako pastel guztiak prest egon behar dira, furgoneta kargatu eta dendara eramateko. "Egunero egiten ditugu pastelak, atzera gelditutakoak ez ditugulako inoiz hurrengo egunean saltzen", adierazi du horren harira Isabelek, Pilarren ahizpak. "Horixe da hemengo sekretua", gaineratu du. Muruamendiaraz gozoez izena noraino iritsi den galdetuta "munduaren azkeneraino", bota du Juanjok, irribarretsu. Elgoibarren duten dendetatik kanpora, Soraluzera eta Mendarora ere saltzen dute gaur egun, eta asko dira, era berean, kanpotik gozo bila etortzen direnak. Elgoibarren lanean ari diren beharginek ere sarri jotzen dute Muruamendiaraztarren lan-tegira.

Uda, urte sasoirik txarrena

Nolana ere, krisiaren eragina igarri dute Muruamendiaraztarren ere. "Beharakada handirik ez da izan, baina igartzen da bizipoza falta duela jendeak", dio Juanjok. Baietz diote gainerakoek buruarekin. "Lehen, dozena bat edo dozena t'erdia nahi zuten galdetu eta dozena t'erdia erantzuten zuten, eta orain, berriz, dozena bat edo dozena erdi", dio Pilarrek. Krisiak bakarrik ez, hala ere. Urte sa-

soiak ere izaten du eraginik eskaeran, eta zer esanik ez eguraldiak. Ekaina eta uztaila izaten dira hilabeterik eskasena. "Domeketan eguraldi ona egiten duenetan igartzen dugu bereziki", zehaztu dute. Eguraldiaz gain, jende askok uda aldera izaten duen argaldu nahi horrek eraginik ba ote duen galdetu die kazetariak, eta ezetz erantzun dute guztiak aho batez. "Gure produktuek ez dute gizentzen, ez behintzat neurritz kanpo jan ezean", esan du Juanjok. Eta Muruamendiaraztarrei eurei begiratuta, ez du ematen, ez, gizentzen dutenik. Bistan da tamaina hartua dietela gozoei. "Nik jan dudana beste pastel ez du inork jan hemen, eta oraintxe nago lodien", esan du horren harira Juani Muruamendiarazek. 70 urte beteak ditu Juanik, eta sasoi dago. Ez dauka, ez, zer kendu handirik.

Udan saltzen dute gutxien, eta Gabonetan gehien. Ospakizun egunak izaten dira, eta erruz saltzen dituzte mokadutxo goxoak. Tarta inperiala eta errege opila izaten dira salduenak. Halako egunetan, izaten da bestela ere zer jana etxeetan, eta gozogileen meritua horixe dela dio Juanjok: "Postreari orduko lepo bete den jende horrek postreari lekua egitea. Nik ez dakit lortzen dugun, baina hori lortzea handia litzateke". Isabelek beste uste bat dauka, hala ere. "Nik uste dut estomagoan denok daukagula aparteko beste leku bat, postrearentzako".

Lanbroa

Gosariak
Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak

Astelenetik ostiralera irekita goizeko 6etatik aurrera.
Larunbat eta jaiegunetan goizeko 8etatik aurrera.

Pedro Muguruza, 5 · Tel.: 943 74 38 11 / 943 74 08 06

talbe, S.L.

➤ LAUKETAK
➤ MORTASAKETAK
➤ BROTXAKETAK

JAI ZORIONTSUAK!!

Sigma Industrialdea
Xixillon, 2 beheko solairua 9
Tel. 943 743 286
ELGOIBAR (GIPUZKOA)
talbe@euskalnet.net / www.albesl.com



Atzetik aurrera, Isabel Gonzalez, Pilar, Juani, Isabel, eta Mertxe Muruamendiaraz ahizpak, Maribel Prol eta Ana Perez.

Sanbartolomeetan, berriz, baseritarren eguna da gozo saltzaileen-tzako egunik onena. "San Bartolome egunak eusten dio, baina zalantzarik gabe baseritarren eguna da onena. Txiki Eguna, adibidez, sekula ez da berezia izan", esan du Juanjok. Denboran atzera egin, eta umezarora begira jarri ditu azalpen horrek Muruamendiaraz ahizpak. "Gure gaztaroan Txiki Eguna egun handia izaten zen. Izozki asko saltzen genuen jate-txeetara-eta", nabarmendu du Juanik.

Sanbartolomeekin lotura berezia

Nolanahi ere, jaiekin lotura estua izan du beti Muruamendiaraz gozotegiak. Lantegia San Bartolome kalean zutenean, gaupasan zebitzan asko joaten zitzaizkien goizaldera ate joka, eta sokamuturreko zezena bera ere behin baino gehiagotan sartu zitzairen lantegi barrura, Plaza Txikitik nahiz kaletik. Era berean, Mauxitxa txarangak ere urtero egiten du geldialdixoa Muruamendiaraz aurrean. Aspalditik datorren ohitura da, Juanjok azaldu duenez. "Jesus Ezenarro gure lankideak txaranga jotzen zuen lehen, eta gurekin gozotegian lanean hasi zenean urtero irteten ginen atara txarangaokoak bistatzen zirenean. *Pastelero dale fuego* jotzen hasten ziren beti". Orain dela 24 bat urte hasitako kontua da hori.

Lanean bizi dituzte jaiak, eta gozotegiko langile gazteenei bereziki gogorra egiten zaie oraindik ere, sasoi batetik hona ohiturak ere aldatu direlako eta orain egunez baino gehiago gauzez egiten delako jai. Beti izan da horrela, hala ere. "Gu gazte ginenean ere izaten genituen tirabirak. Behin, San Bartolome gau osoan jardun genuen lanean, Txiki Eguna jai egiteko, baina ez zitzaigun guk nahi bezala irten. Gau guztia lanean pasatu ondoren, irten gara zezenera, eta han non datozen gure bila, pastelak bukatu zirela eta lanera joan behar genuela esanez. Lehenengoa eta azkena":

Aurten ere, gogotik egin beharko dute lan jaietan, elgoibartarren eta kanpotik datozen bisitarien ahosabaiak gozatzeko, baina bezeroak gustura hartzen dituen bitartean, gustura jarraituko dutela aitortu dute aho batez. 75 urte bete dituzte, eta urteurren hori lokalaz aldatzeko baliatuko dute. "Gabonetarako lokal berrian egongo garela uste dugu. Ez gara urrutira joango, hala ere". Azkue erretratu dendak San Bartolome kalean erabili zuen azkeneko lokalera aldatuko due lekuz Muruamendiazarren gozotegia.

EGUN BAKOITZERAKO, GOZO BAT

Bezpera: Bonba



San Bartolome eguna: Hojaldrezko tarta

Txiki eguna: Mozkorra



Umeen eguna: Palmerak

Gazteen eguna: Miloja



Baseritarren eguna: Tarta inperiala

Jubilatuen eguna: Pastak



AN
INTERIORES

PEDRO MUGURUZA ETORBIDEA, 5
ELGOIBAR
TLF FAX 943-743245
an@an-interiores.com

ONDO PASA JAIK!!!



ESTUDIOA PROIEKTUAK ERREFORMAK DEKORAZIOA ALTZARIAK SUKALDEAK

SLK **ensington**
Hizkuntza
Zerbitzuak

2010-2011
IKASTURTERAKO
MATRIKULA IREKITA

Borroto pasealekua, 18 AIETE
20009 DONOSTIA
Tel: 943 31 33 77
E-posta: donosti@kensington-sl.es

ZORIONAK IKASLE GUZTIOI
CAMBRIGEKO AZTERKETAN
LORTUTAKO EMAITZENGATIK!!

ONDO PASA JAIK!

San Inazio kalea, 4
20870 ELGOIBAR
Tel: 943 74 02 36 - Faxa: 943 74 35 12
E-posta: idiomas@kensington-sl.es

GOKI ERREFORMAK

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab.
20870 ELGOIBAR
Tel.: 943 744 223
943 744 640
Faxa: 943 744 587
goki@gokierreformak.com



Irizar ibilbidea, 1 behea
20570 BERGARA
Tel.: 943 765 342
Faxa: 943 765 216
bergara@gokierreformak.es

Fatxadak

Teilatuak

Barruko obrak



iturgintza

Pedro Muguruza etorbidea, 11 behea - 20870 Elgoibar
Tel.: 943 254 522 - Faxa: 943 254 523
ongi@ongi-elgoibar.com - www.ongi-elgoibar.com



BAINUGELAK
GASA
KLIMATIZAZIOA
ENERGIA BERRIZTAGARRIAK



FONTANERÍA
Ibámar
 ITURGINTZA

Bernardo Ezenarro kalea, 2 behea
 Erakusketa/Faxa: 943 531 847
 Floren Cid: 647 463 436
 E-posta: ibamar@euskalnet.net

Jai zorientsuak!

BEROGAILUA ● GASA ● GASOILA ● AIRE EGOKITUA ● ALTZARIAK
 MANPARAK ● OSAGIAK ● GREMIOEN KORDINAZIOA ● ERREFORMAK



**Elgoibar: Errosario kalea, 35. zbkia.
 Azken etxebizitza salgai!**

Ondo pasa jaiak!

RAIKETAK S.L.
SAGARMIÑA

Hondartza 3-4, Behea.
 20820 DEBA - GIPUZKOA
 Tel./Faxa: 943 192 249
 Mugikorrak: 629 639 685 / 629 641 940
sagarmina@sagarmina.com
www.sagarmine.com

- Etxegintza eta Erreforma Lanak
- Txalet eta Baserriak
- Teilatuak, Fatxadak, e.a...
- Gremioen arteko Kordinazioa
- 35 urtetako esperientzia

EIZAGUIRE
 OKINDEGIA

LANTEGI PROPIOA

Espezialistak artisau ogietan,
 txapata ogietan, opiletan...

"Betiko ogia"

Ondo pasa jaiak!



San Frantzisko kalea, 22 behea
 Tel. 943 74 04 88

**Belaustegi
Baserria**



JATETXEA

San Migel Gaina z/g
Tel. 943 74 31 02
www.belaustegi.com



**Sanbartolomeetan
menu berezia**



*Ondo pasa jaizak
Belaustegiren partez!*

**Portxe-jardineko jaiman bazkaldu edo afaltzeko aukera.
Ostiral eta larunbatetan,
gaueko 22:00etatik aurrera kopak jardinean.**

Goitik behera, ziztu bizian

Gazteen Eguneko goitibeheren jaitsierak jendetza batzen du urtero San Roke auzoko bide bazterretan. Ikusle horietako bat izan zen hainbat urtez Erminio De Carlo ere, baina ikusi zuen lehen unetik piztu zitzaion noizbait parte hartzeko gogoia.

Ume sasoietatik ezagutzen ditut goitibeherak, Italia hegoaldean ezagunak direlako, eta hona etorri eta ikusi nituen lehen unetik parte hartu nahi izan dut Gazteen Eguneko goitibeheretan". Gehien lagunak konbentzitzen kostatzen zitzaiola dio, "lagunak zirikatzeke apustua bota behar izan nien". Apustuaren amuak ondo funtzionatu zuen eta osatu zuen taldea; aldapan behera jaisteko tramankulua falta zitzaion, ordea. Goitibehera egitea haren gainean jaisteko prest zeuden lagunak topatzea baino errazagoa izan eizen: "Pare bat egunetan prest geneukan. Lagunetako bat mekanikoa izateak asko erraztu zituen gauzak", azaldu du. Eta hala, taldea osatuta eta goitibehera eginda, 2008ko sanbartolomeetan irten ziren estreinakoz.

Bide bazterrean zegoen jendetzak inpresioa egin ziola oroitu du. "Monakoko 1 For-

mulako zirkuitua zirudien", dio irribarez. Abiadura du gogoko Erminiok eta goitibeheretan abiadura sentazioa ez dela nolana hiko dio. "Kanpotik ikusita besterik eman dezakeen arren, azkar jaisten gara, gure aldean askoz azkarrago jaisten direnak badauden arren, noski. Kanpotik etortzen diren goitibehera erdi profesional horiek sari bila datoz, baina gu parte hartzera eta ondo pasatzera irteten gara". Iaz ere errepikatu zuten esperientzia eta aurten ere badute irteteko asmoa. "Hobekuntza batzuk egin nahi dizkiogu bolidoari, baina garaiz ailegatzen ez bagara iazkoarekin irtengo gara... eta kitto!"

Ibilbideaz ez dauka kexarik eta aproposatzen dela irizten dio. "Ez dauka ezer faltan, ezta soberan ere. Beharbada, zatiren bat hobeto asfaltatzea, iaz zulo baten erruz ia ospitalean bukatu nuen-eta. Airean irten ginen hirurok".



Bi aldiz irten da Erminio De Carlo Gazteen Eguneko goitibehera jaitsieran, eta aurten ere ez du hutsik egin nahi.

Proposamen bat ere laga du airean: "Banan-banan jaisteaz gainera, maila bereko bi edo hiru goitibeheren arteko lasterketaren bat ere jarriko nuke. Dibertigarria izan daiteke eta pixka bat luzatuko luke ikuskizuna, jendea goitibehera gehiago ikusteko gogoz geratzen den sentazioa daukat-eta". Amaitzeko, goitibeheretan parte hartzera animatu ditu Erminiok elgoibartarrak: "Barrutik bizitzera merezi duen esperientzia da".

PREZISIO MUNDU BAT



myl precision spindles
& spindle repairs service **MYL S.A.**

Ondo pasa jaietan!

Erramone poligonoa, 1-3-5 - 20850 **MENDARO**
Tel. 943 75 70 03 · Faxa: 943 757 130
E-posta:myl@myl.es · <http://www.myl.es>

Erretratu zaharra

1963

Aste honetako erretratu zaharra Antonia Aldurrek ekarri du BARRENERA. 1963. urte inguruan ateratako argazkia da, Txiki Egunean. Orduan ere zuriz jantzita irteten zen jendea kalera, gerriko, zapi eta txapel gorriarekin. Hala ere, garai hartako Txiki Egunak bazeukan gaur egungoarekin desberdintasun bat: jendea garbi itzultzen zen etxera. Izan ere, Txiki Egunean ardo botatzeko ohitura berria da. Lehen, mahatsa jaten zen sokamuturra amaitzen zenean. Erretratuan azaltzen direnak Maria Dolores eta Jose Luis Agirregomezkorta neba-arrebak dira.



1957

Gloria Odriak ekarri du argazki hau. 1957. urtean ateratakoa da, Txiki Egun batez. Garai hartan dultzaineroek buruhandiek inbatero egiten zuten kalejirakoa duzue irudia. Gogora ditzagun Lizarrako dultzaineroei begira agertzen diren elgoibartarrak nortzuk diren. Atze-atzean, hormaren kontra daudenak: Josefina Irusta, Maritxu Urain, Arrate Etxaniz eta Maite Manterola. Aurreko ilaran, ezkerretik eskuinera: Patxi Betelu (txapelduna), ezezaguna, Elena Tuero, Ana Maria Garcia, haren atzekoa, ezezaguna, Loli Ruiz de Zarate, Mari Cresen Egurrola, ezezaguna, Gloria Odria, Angelita Lizundia, Tere, eta eskua emanda dauden bi emakumeak: Karmen Agirregomezkorta eta Elena Arriola. Haien atzean ageri den kapeladuna, berriz: Balentin Txurruka.

jai
zoriontsuak!



elgoibar **ikastola**

Herri Onurako izendatua

www.elgoibarikastola.eu

Tel.: 943 744 441

URKIOLA

Jaiak zuekin ospatzeko prest!

San Frantzisko, 8 • Tel.: 943 742 073



urkotronik

*Jai
Zoriontsuak!*



Ostalaritza

902 127 137



Vending

www.urkotronik.com



Dibertimenduzko
jokoak

Eibar

ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa 18 urte bete baino lehen eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

09:45etatik-12:15era

15:00etatik-20:30era

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Kreditutxarekin ordaintzeko erraztasunak

NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

ZELETA

BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan
energia berriztagarriak
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

JAIK ONDO PASA!

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • www.zeletabaserria.com



Klinikan %15eko deskontua inplante tratamenduetan

Aldaz Hortz Klinikak tratamendu aurreratuenetan aplikatutako punta puntako teknologia eskaintzen dizu

- inplanteak eta hortz fijoak egun batean**
- ia batere erasotzailea ez den ordenagailuz bideratutako kirurgia, punturik erabili gabe**
- “invisaling” ortodontzi ikusezina**
- haurrentzako ortodontzi tratamendu prebentiboak eta korrektoreak (Osakidetza-**PADI**)**
- pazientearen irribarrea sesio batean aldatzen duten karilla estetikoak**
- interesik gabeko finantziazioa 18 hilabete arte**

RPS 25/06

Deitu gure zerbitzua ezagutzeko

943 366 377

Ola kalea, 10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870

www.dentalaldaz.com

AENOR

ER

Empresa
Registrada

ER-0605/2005

DACC

- Arropak 46 tailatik
80 arte
- Osagarriak:
pultserak, belarritakoak...
- Merkatuko marka
ezagunenekin egiten dugu lan
(Lola Casademunt, Paca Garcia, Biluzik...)

**ZATOZ ETA
PRESTA
ZAITEZ
JAIETARAKO
GURE ARROPA
AUKERA
ZABALAREKIN!!**

ONDO PASA FESTAK!

